

2023-2024 IRALE Programa.

R300-R400-R600-R900 IKASTAROAK

HE2, C1 EDO BALIOKIDEREN BATETIK GORAKO IKASTARO TRINKOAK

Irakaskuntzako langile bitarteko eta ez-finkoak

| Ikastaro-mota | AZALPENA |
|---------------|---|
| R300 | Euskarazko komunikazio-konpetentzia sendotzeko ikastaroa, irakasle eta hezitzaileentzat |
| R400 | Euskarazko ikasmaterialak sortzen trebatzeko ikastaroa |
| R600 | Curriculumaren euskal dimentsioa irakasarloetan eta ikastetxean lantzeko ikastaroa |
| R900 | Euskarazko ahozko komunikazioa irakasjardunean |

(Izena R ikastaro baterako baino gehiagotarako emanez gero, lehentasun hau ezarriko da: R900 > R600 > R400 > R300)

| Norentzat | R300 | R400 | R600 | R900 |
|--|------|------|------|------|
| Herri-ikastetxeetako irakasle funtzionarioak, finkoak | X | X | X | X |
| Herri ikastetxeetako irakasle bitartekoak | X | X | X | X |
| Ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak | X | X | X | X |
| Herri-ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finkoak | X | | | |
| Herri ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko aldi baterako irakasle eta hezitzaileak | X | | | |

| | R300 | R400 | R600 | R900 |
|-------------------------------|---|--|--|--|
| Datak eta irakastegiak | <p>1. txanda</p> <p>(Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)</p> <p>2023/09/07- 2023/12/22</p> <p>2. txanda</p> <p>(Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)</p> <p>2024/01/08- 2024/03/22</p> | <p>(Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)</p> <p>2023/09/07- 2023/12/22</p> | <p>1. txanda</p> <p>(Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)</p> <p>2023/09/07- 2023/12/22</p> <p>2. txanda</p> <p>(Donostian eta Bilbon)</p> <p>2024/01/08- 2024/03/22</p> | <p>(Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)</p> <p>2024/01/08- 2024/03/22</p> |
| Ordutegia | Goizez, bosna ordu | Goizez, bosna ordu | Goizez, bosna ordu | Goizez, bosna ordu |
| Zenbat ordu | 365 ordu | 365 ordu | 365 ordu | 365 ordu |

Ordu-kopuruak gutxi gorabeherakoak dira.

R ikastaroen egutegia eta ordutegia IRALEko irakastegi bakoitzak zehaztuko ditu; ikasketarien ordutegi-egutegiak, beraz, horiexek izango dira, eta ez haien ikastetxeetakoak.

R ikastaroen ikasketariak, IRALEko irakastegian dauden bitartean, ez dute baimenik izango irakastegiko jardunez besteko eginkizunetan parte hartzeko (irakastegiko ordutegiaren barneko bestelako ikastaroetan, ikasketa-bidaietan...).

EGUTEGIA – IRAKASLE BITARTEKO ETA EZ-FINKOAK

- . Eskabidea egiteko epea 2023/04/19tik 2023/04/11ra
- . R400, R600 eta R900 ikastaroetarako egitasmo-txostena aurkezteko azken eguna..... 2023/05/18
- . Onartuen behin-behineko zerrendak (1. txanda) 2023/06/27
- . Erreklamazioak aurkezteko eta uko egiteko epea (1.txanda)..... 2023/06/28etik 2023/06/30era
- . Onartuen behin betiko zerrendak (1. Txanda) 2023/07/07

- . Onartuen behin-behineko zerrendak (2. txanda) 2023/10/09
- . Erreklamazioak aurkezteko eta uko egiteko epea (2. txanda) 2023/10/10etik 2023/10/13ra
- . Onartuen behin betiko zerrendak (2. txanda) 2023/10/24

ESKABIDEAK NOLA BETE

Nola: *online* bidez. Horretarako, jo helbide honetara:

www.hezigunea.euskadi.eus > izapideak langileen sailarekin > irale ikastaroak

Online ezin baduzu egin, jo dagokizun Hezkuntza Ordezkaritzara (Euskara Atala)

Kontuan hartu beharreko informazioa:

- . **R300 ikastaroa** eskatzeko, ezinbestekoa izango da galdetegi bat eranstea (Deialdiaren IV. eranskina), komunikazio-gaitasunaren zer eremu hobetu nahi dituzun adierazteko.
- . **R400, R600 eta R900 ikastaroak** eskatzeko, ezinbestekoa izango da dagokion ikastetxeko zuzendariak bete beharreko adierazpena eranstea (deialdiaren V., VI. eta VII. eranskinak). Dokumentu horren bidez, ikastetxeek adieraziko dute ikastaro hori egiteak ikastetxearen beharrei erantzuten diela, eta bat datorrela hezkuntza-proiektuarekin eta hizkuntza-proiektuarekin.
- . **R400, R600 eta R900 ikastaroak** eskatzeko, ikastaroetan garatu beharreko proiektuaren egitasmo-txosten labor bat aurkeztu beharko da. Egitasmo-txosten labor horiek prestatu ahal izateko gidak eskuragarri daude Hezkuntza Sailaren webgunean (txostena aurkezteko azken eguna: maiatzaren 17a).
- . **Egile-eskubideak.** Ikasketariak proiektua egitean beste egileren batzuen testuak, irudiak eta beste erabiltzeko asmorik badu, berak izango du dagozkion baimenak eskuratzeko ardura. Baimenak eskuratuta izan beharko ditu egitasmo-txostena aurkezten duenerako.



IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA
ZERBITZUA



HELBIDEAK

Arabako Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoa: 945 017 251

E-posta: huisarep3@euskadi.eus

Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoak: 944 031 101/ 944 031 109

E-posta: huisb130@euskadi.eus

Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoa: 943 022 873

E-posta: huisg006@euskadi.eus

Hezkuntza Sailaren webgunea:

<http://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara>